Abril ha sido un mes seco en la vertiente cantábrica y muy seco en la mediterránea. Como es habitual, los acumulados más altos se localizan en el este de Gipuzkoa, donde tan sólo la estación de Añarbe ha superado los 100 mm (Añarbe 109.1 mm, Ameraun 93.8 mm, Ereñozu 89.7 mm). Además, en una franja entre el Gran Bilbao y Urkiola encontramos otros máximos secundarios (Urkizu 89.3 mm, Urkiola 82.7 mm, Arboleda 81.8 mm, Venta Alta 79.8 mm). Los más bajos, en el eje del Ebro (Moreda 4.6 mm, Páganos 11.6 mm, Zambrana 11.9 mm), aunque el resto de Álava, exceptuando la Cantábrica Alavesa y las Estribaciones del Gorbea, presentan también valores muy escasos (Abetxuko 17.7 mm, Salvatierra 24.8 mm, Kanpezu 19.4 mm). Los porcentajes respecto a lo normal son dignos de mención, del 50 % en la vertiente cantábrica y del 20-30 % en la mediterránea, incluso más bajos en la Rioja Alavesa.

Las temperaturas medias de abril han sido cálidas. En la costa han superado los 12 °C y en la Llanada Alavesa los 10 °C, aproximadamente 0.5 °C por encima del promedio normal para el conjunto de la CAPV. En relación a los últimos años, estos valores se encuentran en una posición intermedia, muy lejos del record de las series del 2011.

Las situaciones anticiclónicas han condicionado el régimen de vientos, alternándose los del Atlántico, que han introducido flujos del norte, con el británico-europeo, que ha favorecido la llegada de flujos continentales y del levante.

APIRILA

Egoera sinoptikoaren arabera, antizikloi indartsuak nagusitu ziren. Batzuk Ipar Atlantikoan kokatu ziren eta iparraldeko haizea eragin zuten. Beste batzuk Britainiar uharteetan kokatu ziren, Europarantz zuzendutako dortsalarekin, eta hauek fluxu kontinentalak eta ekialdekoa ibilarazi zuten, giro lehorra eta oso eguzkitsua eraginez.

Apirila kantauri isurialdean lehorra izan zen eta Mediterraneo isurialdean oso lehorra. Askotan gertatzen den bezala, orduan ere Gipuzkoa ekialdean egin zuen euri gehien, baina Añarben baino ez ziren 100 mm baino gehiago pilatu (Añarbe 109.1 mm, Ameraun 93.8 mm, Ereñozu 89.7 mm). Gipuzkoa ekialdeaz gain, Bilbo Handia eta Urkiola arteko beste zenbait leku ere aipatu behar dira (Urkizu 89.3 mm, Urkiola 82.7 mm, Arboleda 81.8 mm, Venta Alta 79.8 mm). Prezipitazio gutxien Ebro ondoko eskualdean egin zuen (Moreda 4.6 mm, Paganos 11.6 mm, Zambrana 11.9 mm). Arabako beste hainbat tokitan ere euri gutxi egin zuen (Abetxuko 17.7 mm, Salvatierra 24.8 mm, Kanpezu 19.4 mm); Arabako kantauri isurialdean eta Gorbeia aldean ur gehiago pilatu zen. Normalarekiko desbideratzea ere aipagarria izan zen: kantauri isurialdean %50, Mediterraneo isurialdean %20-30 eta Arabako Errioxan are baxuagoa.

Apirileko batez besteko tenperaturak beroak izan ziren, kostaldean 12 °C-tik gorakoak eta Arabako Lautadan 10 °C-tik gorakoak; EAE osorako batez besteko normala baino 0,5 °C beroagoak. Azken urteekin alderatuz, batez besteko balioak erdiko balioetan kokatu ziren, 2011ko errekorretatik urrun.

Egoera antizikloikoek baldintzatu zuten haizearen norabidea. Atlantikoko antizikloia -iparraldeko fluxua- eta britainia-europa arteko antizikloia –ipar-ekialdeko eta ekialdeko fluxua- tartekatu ziren.

MAYO

Durante las dos primeras semanas la situación sinóptica ha estado caracterizada por la circulación desprendida de sendas depresiones atlánticas, centradas al norte de las Azores, mientras que la península ibérica se encontraba bajo dorsales anticiclónicas. Al acercarse dichas borrascas a las costas de Galicia, diversos sistemas frontales y líneas de inestabilidad han barrido el territorio de oeste a este, dejando algunos días de lluvia. En la tercera semana se ha formado una vaguada de aire frío que ha avanzado hacia el continente europeo, dejando su espacio a un potente anticiclón atlántico. A partir del día 17 nos ha cruzado, provocando un acusado descenso de las temperaturas y chubascos de carácter tormentoso. Ya en la cuarta semana, nos encontramos bajo una potente dorsal anticiclónica, que partiendo del norte de África ha ido invadiendo la península ibérica, hasta llegar al sur de la península escandinava, de manera que las temperaturas han remontado progresivamente. El mes finaliza con el paso de una vaguada poco profunda por el Cantábrico, dejando un ambiente más húmedo y fresco.

Mayo ha sido un mes seco en la CAPV. En el este de Gipuzkoa la situación se agudiza un grado más, llega a muy seco, mientras que el oeste de la CAPV se encuentra más próximo a lo normal. Así, esta vez no encontramos los acumulados más altos en la zona habitual, sino en una franja que va aproximadamente desde las Etribaciones del Gorbea hacia el Bajo Deba. En cualquier caso, no se han superado los 100 mm (Sarria 97.1 mm, Orduña 89.1 mm, Mañaria 88.5 mm, Venta Alta 87 mm). Valores también parecidos de manera puntual en el este de Gipuzkoa (Ereñozu 95.1 mm, Añarbe 87.9 mm). Los más bajos, en la Llanada y en la Rioja Alavesa (Párganos 31.5 mm, Alegría 39.1 mm, Salvatierra 40.1 mm).

Las temperaturas medias de mayo han sido muy cálidas, llegando a extremadamente cálidas en las estaciones de referencia de Bilbao y Vitoria-Gasteiz, según el periodo normal 1981-2010. En la costa han rondado los 17 °C y en la Llanada Alavesa se han acercado a los 16 °C, esto es, casi 2 °C por encima del promedio normal para el conjunto de la CAPV. Estos valores indican que el presente mayo ha sido el más caluroso de lo que llevamos de siglo, exceptuando el 2011 en la costa. En el interior de Álava se encontraría incluso muy próximo al record de las series climatológicas.

Los flujos ibéricos han sido los predominantes a lo largo del mes. A estas alturas del año comienzan a ser protagonistas también configuraciones sinópticas poco definidas, que dan lugar a flujos locales, con régimen de brisas en el litoral.

MAIATZA

Lehenengo bi astetako egoera sinoptikoaren arabera, Azoreen iparraldean kokaturiko depresio atlantikoaren zirkulazio askea nagusitu zen eta bitartean Iberiar penintsula dortsal antiziklonikoen eraginpean egon zen. Depresio horiek Galiziako kostaldera hurbiltzean, hainbat fronte sistema eta ezegonkortasun lerrok lurraldea mendebaldetik ekialdera zeharkatu zuten eta egun batzuetan euria egin zuen. Hirugarren astean, aire hotzeko aska bat sortu zen, Europarantz mugitzen joan zen eta bere lekua atlantikoko antizikloi indartsu batek hartu zuen. Hilaren 17tik aurrera, lurraldea zeharkatu zuen, tenperaturaren jaitsiera eragin zuen eta zaparrada trumoitsuak bota zituen. Laugarren astean, dortsal antizikloniko indartsu baten eraginpean egon ginen; Afrika iparraldetik zabaltzen hasi eta Iberiar penintsula osoa zeharkatu zuen Eskandinaviako penintsularen hegoalderaino iritsi arte. Ondorioz, tenperatura pixkanaka igotzen joan zen. Hilabetearen bukaeran aska bat Kantauri itsasotik igaro zen, ez zen oso sakona izan, baina giro hezea eta freskoa utzi zuen.

Maiatza lehorra izan zen EAEn. Gipuzkoa ekialdean egoera areagotu egin zen, oso lehorra izan baitzen hilabetea. EAEn mendebaldean, berriz, ohikotik gertu egon zen. Gauzak horrela, euri kopuru handienak ez ziren pilatu ohiko tokietan, baizik eta Gorbeia inguruko mendietatik Deba Behera doan lerro inguruan. Era guztietara, ez ziren 100 mm-ak gainditu (Sarria 97.1 mm, Orduña 89.1 mm, Mañaria 88.5 mm, Venta Alta 87 mm). Antzeko balioak izan genituen Gipuzkoa ekialdean (Ereñozu 95.1 mm, Añarbe 87.9 mm). Euri gutxien Arabako Lautadan eta Arabako Errioxan egin zuen (Páganos 31.5 mm, Alegría 39.1 mm, Salvatierra 40.1 mm).

Maiatzean batez besteko tenperatura oso beroa izan zen eta erreferentziako estazio diren Bilbo eta Vitoria-Gasteizen erabat beroa, 1981-2010 periodo normalaren arabera. Kostaldean batez besteko tenperatura 17 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 16 °C-ra hurbildu ziren; EAE osoa kontuan hartuz periodo normalekoa baino 2 °C altuagoa. Balio horiek adierazten dute, oraingoz mende honetako maiatzik beroena izan dela, 2011koa izan ezik kostaldean. Araba erdialdean, adibidez, serie klimatologikoetako errekorra asko hurbildu ziren.

Hego-osagaiko haizea nagusitu zen maiatzean. Urte sasoi honetan ohikoa izaten da ongi definitu gabeko konfigurazio sinoptikoak izatea; horrelakoetan tokian tokiko haizea nagusitu ohi da eta kostaldean brisa.

JUNIO

El mes comienza y termina con una situación sinóptica bastante parecida, la alternancia entre el alta de Azores entrando en cuña hacia el continente y el paso de vaguadas de aire frío, que ha propiciado un tiempo fresco y húmedo. En medio, un largo periodo dominado por dorsales anticiclónicas sobre la península ibérica, con dos pulsaciones máximas, una en torno al día 10, otra más marcada el día 17. Este período se ha caracterizado por el tiempo seco y caluroso, sobre todo en la segunda situación, cuando las temperaturas se disparan.

Junio ha sido un mes normal en la vertiente cantábrica, húmedo en la mediterránea. Los episodios de tormentas han dibujado una configuración espacial de los acumulados de precipitación algo alejado de lo habitual. No han sido muchas las estaciones que han superado los 100 mm, todas ellas ubicadas a lo largo de la franja más oriental de la CAPV (Miramon 131.2 mm, Zegama 130.2 mm, Agauntza 122.4 mm, Alegría 118.2 mm, Ilarduia 109.8 mm). También en puntos montañosos de la divisoria (Urkiola 110.4 mm, Urkulu 104.5 mm, Orduña 100.5 mm). Los valores más bajos los encontramos en el sur de Álava (Moreda 48.3 mm, Zambrana 50.2 mm) y en litoral vizcaíno (Punta Galea 48.1 mm, Muxika 56.5 mm, Berriatua 59.8 mm). La situación no mejora demasiado en algunos puntos del interior de este último territorio (Berna 44.3 mm, Cerroja 50.1 mm, Iurreta 58.5 mm).

Las temperaturas medias de junio han sido muy cálidas, según el periodo normal 1981-2010. En la costa han superado fácilmente los 19 °C y en la Llanada Alavesa se han acercado a dicha cifra, casi 2 °C por encima del promedio normal para el conjunto de la CAPV. Estos valores indican que el presente junio ha sido aproximadamente el cuarto más caluroso de las series climatológicas, encabezadas por el excepcional 2003.

El mes arranca con flujos marítimos. Luego predominarán los flujos locales, con un cierto toque del Levante, por las configuraciones poco definidas y la formación de la característica baja térmica peninsular. El mes finaliza de nuevo con flujos marítimos.

EKAINA

Hilabetearen hasieran eta bukaeran egoera sinoptikoa nahikoa antzekoa izan zen. Une batzuetan Azoreetako altua ziri moduan Europan sartu zen eta beste batzuetan aire hotzeko askak igaro ziren, eguraldi freskoa eta hezea eraginez. Erdian, denbora luzez dorsa antiziklonikoak nagusitu ziren Iberiar penintsulan, eta bi pultsazio maximo egon ziren, bata hilaren 10a inguruan, bestea hilaren 17an, nabariagoa izan zen azken hau. Aldi honetan giro lehorra eta beroa nagusitu zen, batez ere aipaturiko bigarren egoeran, orduan tenperatura izugarri igo baitzen.

Ekaina kantauri isurialdean ohikoa izan zen, eta mediterraneo isurialdean hezea. Trumoi-ekaitzen gertakariak prezipitazioaren ohiko banaketa espaziala apur bat desitxuratu zuten. 100 mm baino gehiago jasotako estazioak gutxi izan ziren, eta horietako gehienak EAEn ekialdean daude (Miramon 131.2 mm, Zegama 130.2 mm, Agauntza 122.4 mm, Alegría 118.2 mm, Ilardia 109.8 mm). Isurialdeen banalerroko mendi inguruetan ere 100 mm inguru pilatu ziren (Urkiola 110.4 mm, Urkulu 104.5 mm, Orduña 100.5 mm). Kantitate txikiak Araba hegoaldean (Moreda 48.3 mm, Zambrana 50.2 mm) eta Bizkaiko kostaldean (Punta Galea 48.1 mm, Muxika 56.5 mm, Berriatua 59.8 mm) pilatu ziren. Bizkaia barnealdeko zenbait lekutan ere euria oso urria izan zen (Berna 44.3 mm, Cerroja 50.1 mm, lurreta 58.5 mm).

Temperaturari dagokionez, 1981-2010 denboraldiaren alderatuz, ekaina oso beroa izan zen. Kostaldean aise gairitu ziren 19 °C-ak eta Arabako Lautadan balio horretara hurbildu ziren, EAE kontuan hartuz, periodo normaleko batez besteko balioa baino ia 2 °C altuagoa. Ekaina serie klimatologikoetako laugarren beroena izan zen, zerrenda horretan lehena 2003ko ekaina.

Itsasaldeko haizearekin eman genion hasiera ekainari. Gero tokian tokiko haizea nagusitu zen, ekialdeko ukituarekin, izan ere konfigurazioa ez zen oso argia eta Iberiar Penintsulan ohikoa den bero-depresioa sortu zen. Itsasaldeko haizearekin eman genion amaiera ekainari.

JULIO

La situación sinóptica que más se ha repetido ha sido el anticiclón de las Azores entrando en cuña sobre el Cantábrico y la formación de la típica baja térmica peninsular, lo que ha propiciado un fuerte contraste entre ambas vertientes, más acentuado si cabe en la Rioja Alavesa. Llama la atención la pequeña depresión aislada en altura (DANA) que entre los días 6 a 10 se instala en la Península, permaneciendo estacionaria hasta su desaparición, dando lugar a tormentas. Ayudada por una vaguada atlántica, la baja norteafricana también ha llegado a invadir con claridad toda la CAPV los días 17 y 18.

Julio ha sido, en general, un mes seco en la CAPV, tendiendo a normal en la vertiente cantábrica y a muy seco en la mediterránea, a excepción de la Rioja Alavesa, donde ha llegado a muy húmedo. Estas marcadas diferencias en las calificaciones son debidas a ciertos episodios de chubascos tormentosos, que han afectado de manera muy desigual al territorio. Así, encontramos los acumulados más altos en la zona habitual del este de Gipuzkoa (Berastegi 92.6 mm, Añarbe 88.1 mm), pero luego hay otros máximos secundarios repartidos por diferentes comarcas, desde el Gran Bilbao (Derio 73.9 mm), al Alto Deba (Urkulu 67.8 mm) o la Rioja Alavesa (Moreda 66.1 mm). Este último es el más relevante, puesto que es aproximadamente el cuarto julio más húmedo de las series históricas (desde mediados el siglo pasado). Como veremos después, la mayor parte de este acumulado es debido a un solo episodio. Sin embargo, no muy lejos de allí, en el interior de los Valles Alaveses apenas ha llovido nada (Espejo 3.8 mm, Subijana 4.9 mm). La situación no es mucho mejor en la Llanada Alavesa (Abetxuko 10.9 mm, Salvatierra 16.5 mm).

Las temperaturas medias de julio han sido cálidas, excepto en la Rioja Alavesa, normales. En la costa se han acercado a los 20 °C, unas décimas menos en la Llanada Alavesa, aproximadamente 0.5 °C por encima del promedio normal para el conjunto de la CAPV. En relación a los últimos años estos valores se encuentran en una posición intermedia, lejos del excepcional julio de 2006.

A lo largo del mes ha predominado la componente norte, flujos suaves asociados principalmente al alta de Azores entrando en cuña en el Cantábrico, con régimen de brisas en el litoral.

UZTAILA

Gehien errepikatu zen egoera sinoptikoa Azoreetako antizikloiarena izan zen, Kantauri itsasoan ziri moduan sartzen eta Iberiar penintsulan ohiko baxu termikoa sortu zen. Honek bi isurialdeen arteko kontraste handia eragin zuen, Arabako Errioxan are gehiago nabaritu zen. Deigarria da goi-geruzetan askaturiko depresioa. Hilaren 6a eta 10a bitartean Penintsulan egon zen eta geldikor egon zen desagertu zenera arte, trumoi-ekaitzak utziz. Atlantikoko aska batek lagunduta, ipar Afrikako baxua ere EAE osoa argi eta garbi hartu zuen hilaren 17an eta 18an.

Uztaila, oro har, lehorra izan zen EAEn; kantauri isurialdean ohiko balioetara hurbildu ziren eta mediterraneo isurialdean oso lehorra izan zen, Arabako Errioxan izan ezik, han oso hezea izan zen. Diferentzia handi horiek zaparrada trumoitsuen egoerek eragin zituzten; izan ere, ekaitzak oso modu irregularrean banatu ziren Erkidegoan. Horrela, prezipitazio kantitate handienak ohi bezala Gipuzkoa ekialdean pilatu ziren Gipuzkoa (Berastegi 92.6 mm, Añarbe 88.1 mm), baina bigarren balio handienak sakabanatuta daude, hasi Bilbo Handitik (Derio 73.9 mm), Deba Garaia (Urkulu 67.8 mm) edo Arabako Errioxa (Moreda 66.1 mm). Azken datua da azpimarragarriena, izan ere serie historikoetako (XX. Mendeko erdialdetik) laugarren uztailik hezeena izan zen. Ondoren azalduko dugun bezala, pilatutako ur kantitatearen ia gehiena jazoera batean soilik pilatu zen. Alabaina, leku horietatik gertu, Arabako haranen erdialdean ia ez zuen euririk egin (Espejo 3.8 mm, Subijana 4.9 mm). Arabako Lautadan egoera ez zen izan askoz hobe (Abetxuko 10.9 mm, Salvatierra 16.5 mm).

Temperaturari dagokionez, uztaila beroa izan zen, Arabako Errioxan izan ezik, han ohikoa. Kostaldean batez besteko tenperatura 20 °C-ra hurbildu zen eta Arabako Lautadan hamarren batzuk baxuagoa izan zen balioa, gutxi gorabehera ohiko batez besteko tenperatura baino 0.5 °C altuagoa EAE osoa kontuan hartuta. Azken urteekin alderatuz gero, balio horiek tartekoak dira, 2006ko ezohiko uztail hartako balioetatik urrun.

Ipar-osagaiko haizea nagusitu zen uztailean; oro har fluxua ahula izan zen, Azoreetako antizikloia Kantauri Itsasora ziri moduan sartzen denean gertu ohi den bezala, kostaldean brisarekin.

AGOSTO

El mes comienza dominado por el anticiclón de las Azores, con baja térmica en la Península. La cuña anticiclónica dificulta la entrada de frentes asociados a borrascas que transcurren por las Islas Británicas. En el segundo tercio del mes la circulación pasa a ser desprendida: una depresión aislada en niveles altos (DANA) se sitúa sobre el norte de Francia, haciendo bajar la temperatura. Después se restablecerá la circulación zonal, débil. En superficie predominarán situaciones poco definidas y de estabilidad atmosférica. Los últimos días del mes estarán caracterizados por la fuerte inestabilidad provocada por una DANA que pivotará sobre la Península.

Agosto ha sido, en general, un mes de precipitaciones normales en la CAPV. Dentro de esta generalidad encontramos importantes contrastes. Así, mientras que el litoral se ha comportado de manera húmeda, parte de las Estribaciones, la Llanada Alavesa o el Alto Deba no han pasado de muy secas. Los acumulados más altos se localizan en el este de Gipuzkoa (Ereñozu 180.3 mm, Añarbe 125.3 mm) y en el litoral (Oleta 142.8 mm, Lasarte 142.9 mm). Los más bajos, muy lejos de los anteriores, se localizan en el centro y sur de Álava (Arkauti 14.5 mm, Subijana 18 mm, Moreda 18.9 mm). Destacar también otras cantidades bastante bajas en zonas como el Alto Deba y las Encartaciones (Oñati 30.9 mm, Balmaseda 33.9 mm).

Las temperaturas medias de agosto han sido cálidas. En la costa han superado los 20 °C, unas décimas menos en la Llanada Alavesa, aproximadamente 0.7 °C por encima del promedio normal para el conjunto de la CAPV. En relación a los últimos años estos valores se encuentran en una posición intermedia, lejos del excepcional agosto de 2003.

En el primer tercio del mes han predominado los flujos marítimos, que se han ido haciendo cada vez más del norte e intensificando. Después, han tenido un carácter más local, con régimen de brisas en la costa.

ABUZTUA

Hilabetearen hasieran Azoreetako antizikloia nagusitu zen eta Penintsulan baxu termikoa. Antizikloiaren ziriak Britainiar uharteetatik igaro ziren depresioei loturiko fronteen sarrera eragotzi zuen. Hilabetearen bigarren herenean zirkulazioa askea izan zen: goi-geruzetan askaturiko depresio bat Frantzia iparraldean kokatu zen eta tenperaturaren jaitsiera eragin zuen. Ondoren, zirkulazio zonala berrezarri zen, ahula. Lurrazalean, egoera ez zen oso zehazturik egon eta egonkortasun atmosferikoa nagusitu zen. Hilabetearen azken egunetan, goi-geruzetan askatutako depresio batek penintsulatik biratu eta ezegonkortasun handia eragin zuen.

Prezipitazioari dagokionez, abuztua ohikoa izan zen EAEn. Alabaina, eskualde batzuetatik besteetara alde handiak izan ziren: kostaldean hezea izan zen, aldiz Arabako Lautadan eta Deba Goienan oso lehorra. Prezipitazio kantitate handienak Gipuzkoa ekialdean (Ereñozu 180.3 mm, Añarbe 125.3 mm) eta kostaldean (Oleta 142.8 mm, Lasarte 142.9 mm) pilatu ziren. Txikiak Araba erdialdean eta hegoaldean (Arkauti 14.5 mm, Subijana 18 mm, Moreda 18.9 mm). Nabarmenezkoak dira ere Deba Goienan eta Enkarterrietan izan ziren balio txikiak (Oñati 30.9 mm, Balmaseda 33.9 mm).

Temperaturari dagokionez, abuztua beroa izan zen. Kostaldean 20 °C-ak gainditu ziren eta Arabako Lautadan batez besteko tenperatura hamarren batzuk baxuagoa izan zen; gutxi gorabehera EAE osorako ohiko batez besteko balioa baino 0.7 °C altuagoa. Aurreko urteekin konparatuz, balio horiek tartekoak dira, 2003ko ezohiko abuztuan izan genituen balioetatik urrun daude.

Abuztuko lehen herenean itsasaldeko haizea izan zen nagusi; ipar-osagaia gero eta nabarmenagoa izan zen eta indartu egin zen. Gainerako egunetan tokian tokiko haizea izan zen nagusi eta kostaldean brisa.

SEPTIEMBRE

En la primera semana pequeñas cuñas anticiclónicas se han alternado con tímidas entradas de aire frío en altura arrastradas por la circulación zonal. En superficie dominio del alta de Azores, que no ha impedido la llegada de la cola de varios frentes asociados a depresiones de latitudes altas. El día 9 el anticiclón atlántico se ha estirado de norte a sur. Junto a las bajas presiones situadas en las Islas Británicas han formado un pasillo de vientos del noroeste. El día 13 se ha acentuado la situación, con una componente norte más marcada y procedente de latitudes más altas. Una vez finalizado el bloqueo anticiclónico en el Atlántico Norte el día 17, se ha formado un área de bajas presiones sobre las inmediaciones de las Islas Británicas, instaurándose un flujo templado del noroeste. A partir del día 19 han dominado las altas presiones. Ambiente estable en la recta final del mes, con débiles gradientes de presión en superficie.

Existe una clara transición en las precipitaciones, desde el litoral muy húmedo, hasta el sur de Álava muy seco. Los acumulados más altos, entre los 150-200 mm, se localizan en el litoral más oriental y en las comarcas de Gernika-Bermeo y Plentzia-Mungia (Behobia 214.4 mm, Matxitxako 204.8 mm, Oiartzun 177.2 mm, Mungia 167.2 mm). Los más bajos, por debajo de los 15 mm, se localizan en el centro y sur de Álava (Párganos 2.9 mm, Zambrana 6.1 mm, Kanpezu 9.6 mm, Etura 12.9 mm). Por tanto, un orden de magnitud entre ambos extremos. De manera general, podemos decir que las comarcas costeras han presentado acumulados por encima de lo normal y hacia el interior el balance se hace rápidamente deficitario. Así, en buena parte de Álava ha llovido menos de la mitad de lo esperable, del 20% en el eje del Ebro.

Las temperaturas medias de septiembre han sido frías o muy frías. Han rondado los 17 °C en la costa, los 15 °C en la Llanada Alavesa, aproximadamente 1 °C por debajo del promedio normal para el conjunto de la CAPV. En relación a los últimos años, estos valores se encuentran entre los más bajos, no tanto como los del 2001 y similares a los del 2015.

Durante los dos primeros tercios del mes han predominado claramente los flujos del noroeste y del norte. Después los locales, con régimen de brisas en la costa, además de alguna jornada que otra de viento sur.

IRAILA

Lehenengo astean, batzuetan antizikloiaren ziri txikiak nagusitu ziren eta beste batzuetan zirkulazio zonalak bultzatutako aire masa hotzak apur bat sartu ziren. Lurrazalean, Azoreetako altua nagusitu zen eta ez zuen lortu goi-latituedeetako depresioei loturiko hainbat fronteen isatsen sarrera eragozte. Hilaren 9an, atlantikoko antizikloia iparraldetik hegoaldera luzatu zen. Britainiar uharteetan kokaturiko baxuekin batera, ipar-mendebaldeko haizeko korridorea sortu zuten. Hilaren 13an, egoera nabarmendu egin zen; iparraldeko haizea gehiago nabarmendu eta goragoko latitudeetatik iritsi zen. Ipar atlantikoko blokeo antiziklonioa bukatu zenean hilaren 17an, Britainiar uharteetan inguruan presio baxuen eremua sortu zen eta ipar-mendebaldeko fluxu epela ibilarazi zuen. Hilaren 19tik aurrera, prezio altuak nagusitu ziren. Hilabetearen azken txanpan egoera egonkorra izan zen eta lurrazalean presio gradientek ahulak izan ziren.

Prezipitazioari dagokionez alde nabarmena izan zen kostaldearen eta hegoaldearen artean: kostaldean oso hezea izan zen eta Araba hegoaldean oso lehorra. Euri kopuru handiena, 150-200 mm artean, ekialdeko kostaldean, Gernika-Bermeon eta Plentzia-Mungian pilatu zen (Behobia 214.4 mm, Matxitxako 204.8 mm, Oiartzun 177.2 mm, Mungia 167.2 mm). Euri kopuru txikienak, 15 mm baino gutxiago, Araba erdialdean eta hegoaldean pilatu ziren (Páganos 2.9 mm, Zambrana 6.1 mm, Kanpezu 9.6 mm, Etura 12.9 mm). Beraz, magnitude-orden bateko alde bi muturren artean. Oro har, esan daiteke kostaldean ohiko batez besteko kantitatea baino gehiago pilatu zela eta barnealdean, aldiz, gutxiago. Horrela, ia Araba osoan espero zitekeen euri kantitatearen erdia baino euri gutxiago egin zuen, eta %20 soilik Ebro ibarrean.

Iraillean batez besteko tenperatura hotza edo oso hotza izan zen. Kostaldean 17 °C ingurukoa izan zen eta 15 °C ingurukoa Arabako Lautadan. EAE osoa kontuan hartuz, gutxi gorabehera ohiko batez besteko tenperatura baino 1 °C baxuagoa. Aurreko urteekin alderatuz gero, 2017koa baxueneren artean dago; hala ere 2001eko iraila bezainbeste ez, eta 2015eko balioetatik gertu.

Irailako lehen bi herenetan ipar-mendebaldeko eta iparraldeko fluxua nagusitu ziren argi eta garbi. Gero tokian tokiko haizea eta kostaldean brisa nagusitu ziren; horrez gain, egunen batean edo bestean hegoaldeko haizea ibili zen.

OCTUBRE

Comienza el mes con el interior de Europa bajo vaguadas de aire frío, mientras que el anticiclón cálido atlántico trata de entrar. Sobre la cornisa cantábrica se establece así un cierto flujo del norte, con temperaturas suaves y cielos cubiertos. El día 7 las altas presiones han conseguido instalarse en el continente, ahora los flujos pasan a ser del noreste. La oscilación térmica es mayor al bajar las mínimas y ser días netamente despejados. Para el día 12 están ya en las inmediaciones del Mediterráneo, por lo que los vientos predominantes comienzan a ser del sur. Sigue luciendo el sol, aunque empezarán a formarse nieblas matinales. A partir del 15 se deja sentir el huracán Ophelia frente a la fachada de la Península, al reforzarse el viento sur. Tras ella nos afectan sendas vaguadas, la primera forma una DANA sobre la misma Península. Descienden las temperaturas y se producen las primeras precipitaciones en la comarca. Los chubascos continúan el día 21 debido al flujo del noroeste, aunque son débiles. A partir del día 23 las altas presiones vuelven a ser las protagonistas. En la recta final del mes seguimos bajo su influencia, pero entran flujos del norte al enlazar el alta peninsular con el de Islandia, de manera que llueve de nuevo débilmente.

Este mes ha sido seco en toda la CAPV, llegando a muy seco en buena parte de Bizkaia. Los acumulados más altos se localizan en el este de Gipuzkoa, con tan sólo una estación superando los 100 mm (Bidania 107.8 mm, Berastegi 86.1 mm, Belauntza 80.1 mm, Zizurkil 72.1 mm). Los más bajos se reparten por toda la mitad oeste (Elorrio 11 mm, Ordunte 12.6 mm, Punta Galea 13.8 mm, Moreda 15.6 mm). Los porcentajes respecto a lo normal se encuentran por debajo del 50 % en prácticamente todo el territorio, del 20 % en las inmediaciones de las Encartaciones y la Cantábrica Alavesa, también del Duranguesado. Por tanto, este octubre parece que sigue la tónica del año pasado, que fue aún más seco.

Las temperaturas medias de octubre han sido cálidas en la vertiente cantábrica, muy cálidas en la mediterránea. Han rondado los 17 °C en la costa y se han acercado a los 14 °C en la Llanada Alavesa, algo más de 1 °C por encima de lo normal para el conjunto de la CAPV. En relación a los últimos años, estos valores se encuentran en una posición intermedia, lejos del extremadamente cálido 2006.

Comienza el mes con predominio de vientos de componente norte. Durante la primera semana son marítimos, después continentales. Pronto irán teniendo un carácter más local y haciéndose del sur. A mediados de mes esta última componente se intensifica. Será la protagonista hasta el día 26. El mes finaliza con flujos del norte-noreste.

URRIA

Hilabetearen hasieran Europa barnealdea aire hotzeko asken eraginpean egon zen, eta bitartean atlantikoko antizikloi beroa sartzen saiatu zen. Horrela, Kantauri itsasoan iparraldeko fluxua sortu zen, tenperatura suabea izan zen eta zerua estalia agertu zen. Hilaren 7an, presio altuak Europan ezarri ziren eta haizea ipar-ekialdera aldatu zen. Oszilazio termikoa handiagoa izan zen oskarbi egon zelako eta ondorioz tenperatura minimoak jaitsi zirelako. Hilaren 12rako Mediterraneotik gertu kokatu ziren, hortaz, haizea hegoaldera aldatu zen. Giro eguzkitsuarekin jarraitu genuen, hala ere, goizean behe-lainoa sortzen hasi zen. Hilaren 15etik aurrera, Ophelia urakana nabaritzen hasi zen Penintsularen mendebaldean hegoaldeko haizea indartu zelako. Urrundu ostean, aska bana igaro ziren, batak goi-geruzetako depresio aske bat garatu zuen penintsulan. Tenperatura jaitsi egin zen eta euria egiten hasi zen. Hilaren 21ean zaparradak botatzen jarraitu zuen ipar-mendebaldeko haizeari esker, hala ere, txikiak izan ziren. Hilaren 23tik aurrera, presio altuak nagusitu ziren berriro. Hilabeteren azken txanpan, bere eraginpean jarraitu genuen, baina iparraldeko haize sartu zen penintsularen altua Islandiakoarekin bat egin zuenean. Ondorioz, euri txikia egin zuen berriro.

Urria beroa izan zen kantauri isurialdean eta oso beroa mediterraneo isurialdean. Batez besteko tenperatura kostaldean 17 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 14 °C-ra hurbildu zen, EAE osoa kontuan izanda, ohikoa dena baino 1 °C pasatxo altuagoa. Azken urteei erreparatuz gero, balio horiek erdibideko posizioan daude, 2006 urte erabat beroan neurtutako balioetatik urrun.

Urria lehorra izan zen EAEn, eta Bizkaiko toki gehienetan oso lehorra. Gipuzkoa ekialdean pilatu zen prezipitazio gehien, eta soilik estazio batean gaintitu zen 100 mm-ren muga (Bidania 107.8 mm, Berastegi 86.1 mm, Belauntza 80.1 mm, Zizurkil 72.1 mm). Balio baxuenak mendebaldean neurtu ziren (Elorrio 11 mm, Ordunte 12.6 mm, Punta Galea 13.8 mm, Moreda 15.6 mm). Ohiko prezipitazioaren %50 baino gutxiago egin zuen ia lurralde osoan, %20 soilik Enkarterrietan eta Arabako kantauri isurialdean, eta baita Durangaldean ere. Hortaz, aurreko urteko urriaren joera berdina izan zuen, baina hura are lehorragoa izan zen.

Hilaren hasieran ipar-osagaiko haizea nagusitu zen. Lehenengo astean itsasaldekoa ibili zen, eta ondoren kontinental. Ondoren tokian tokiko haizea nagusitu zen eta ondoren hegoaldekoa. Hilaren erdialdean, hegoaldeko haizea harrotu egin zen eta protagonista izan zen hilaren 26ra arte. Hilaren bukaeran ipar/ipar-ekialdeko haizea ibili zen.

NOVIEMBRE

Durante los tres primeros días de noviembre el tiempo fue estable, debido a que las altas presiones se centraron entre los Alpes y el Mediterráneo central, asociadas a una potente dorsal en altura. Después el anticiclón de las Azores, extendido hacia el norte, dominó la situación sinóptica. Se configuró así un marcado pasillo de vientos húmedos del nornoroeste que provocó precipitaciones. Ya en los días centrales del mes, las altas presiones bascularon entre el Cantábrico y el norte de Francia, dejando un tiempo estable con cielos despejados, inversiones térmicas y heladas. A partir del día 24 el anticiclón atlántico se va potenciando y estirando hacia el norte. Junto con las bajas presiones del continente forman un pasillo de vientos del norte por el que entraron masas de aire de latitudes altas, muy frías y húmedas.

Este noviembre ha sido un mes de contrastes en la precipitación. Si bien buena parte del territorio puede calificarse como seco, hacia el sur de Álava los valores se agudizan, llegan a muy secos, mientras que hacia el nordeste de Gipuzkoa y el Gran Bilbao los valores son húmedos o muy húmedos. Los acumulados más altos se localizan en el este de Gipuzkoa, con varias estaciones por encima de los 200 mm, tres de ellas destacadas por encima de los 300 mm (Berastegi 386.7 mm, Eskas 384.5 mm, Bidania 336.3 mm, Ereñozu 293.7 mm, Andoain 291.6 mm). En Bizkaia hay que indicar también algún punto del Gran Bilbao y de zonas más montañosas (Abusu 245.8 mm, Venta Alta 232.1 mm, Cerroja 199.9 mm, Otxandio 197.1 mm). Hacia el sur de Álava los acumulados bajan rápidamente, siendo los de la Rioja Alavesa los más bajos de la CAPV (Párganos 26.8 mm, Moreda 27.1 mm, Zambrana 33.1 mm).

Las temperaturas medias de noviembre han sido normales en toda la CAPV. En el litoral se han situado entre los 10.5-11.5 °C y han rondado los 7 °C en la Llanada Alavesa, unas décimas por debajo del promedio normal. En relación a los últimos años estos valores son bajos, hay que ir hasta el 2010 para encontrar registros parecidos.

Aunque noviembre comienza con viento sur, la componente norte es la predominante hasta el día 13. Después viene un largo periodo de flujos locales debido al asentamiento de las altas presiones, que se hacen del sur hacia el día 20. El mes finaliza de nuevo con componente norte.

AZAROA

Azaroaren lehenengo hiru egunetan eguraldia egonkorra izan zen, goigeruzako gailur bati loturiko presio altuen gunea Alpe mendien eta Mediterraneoko erdialdearen artean kokatu baitzen. Gero egoera sinoptikoan Azore Uharteetako antizikloia gailendu zen; iparraldean zabaldua, ipar/ipar-mendebaldeko haize hezearentzako pasabidea sortu zen eta euria egin zuen. Hilabetearen erdiko egunetan presio altuen gunea Kantauri Itsasoaren eta Frantziako iparraldearen artean ibili zen; eguraldia egonkorra izan zen, zerua oskarbi egon zen, temperatura alderantzikatzea gertatu zen eta izotza bota zuen. Hilaren 24tik aurrera Atlantikoan antizikloia indartuz joan zen, iparraldean zabaltzen zen bitartean, kontinentean depresioak nagusi zirela. Bi egitura horien artean, ipar-haizea ibili zen eta goi-latitudek etorritako aire-masa oso hotzak eta hezeak zabaldu ziren gurean.

Prezipitazioari dagokionez, kontraste handiak izan ziren leku batzuetatik besteetara. Nahiz eta leku gehienetan lehorra izan, Araba hegoaldean oso lehorra izan zen, aldiz Bilbo Handian eta Gipuzkoa ekialdean hezea edo oso hezea. Gipuzkoa ekialdean pilatu zen prezipitazio gehien, zenbait estaziotan 200 mm baino gehiago eta hiru estaziotan 300 mm baino gehiago (Berastegi 386.7 mm, Eskas 384.5 mm, Bidania 336.3 mm, Ereñozu 293.7 mm, Andoain 291.6 mm). Bizkaian Bilbo Handiko estazioren bat eta mendi inguruetakoko estazioak dira aipagarri (Abusu 245.8 mm, Venta Alta 232.1 mm, Cerroja 199.9 mm, Otxandio 197.1 mm). Araba hegoaldean, berriz, prezipitazioa askoz urriagoa izan zen eta Arabako Errioxan EAE osoko kantitaterik txikienak neurtu ziren (Paganos 26.8 mm, Moreda 27.1 mm, Zambrana 33.1 mm).

Azaroko batez besteko temperatura ohikoa izan zen EAE osoan. Kostaldean batez besteko temperatura 10.5-11.5 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadan 7 °C-koa, ohiko batez bestekoa baino hamarren batzuk baxuagoa. Azken urteetako batez besteko temperaturarekin alderatuz, azaro honetako balioak baxuak izan ziren, 2010. urteko balioetara jo beharko genuke antzeko balioak topatzeko.

Azaroaren hasieran hego-haizea ibili zen arren, hilaren 13ra arte ipar-osagaia gailendu zen. Gero presio altuak ezarri eta fluxu lokalak izan ziren nagusi; hilaren 20an hegoaldetik finkatu zen haizea. Azaroaren amaieran ipar-osagaiko haizea ibili zen berriro.

DICIEMBRE

Comienza el mes con una situación de bloqueo anticiclónico, que propicia la entrada de una masa de origen ártico marítimo. El día 3 las altas presiones se desplazan hacia el sur y entran en la Península, de manera que el tiempo es estable el resto de esta primera semana, aunque persiste el frío. Después se reactiva la circulación zonal, que guía numerosos sistemas frontales hacia el norte peninsular. En este periodo destaca la depresión atlántica bautizada como “Ana”, que se desarrolla de manera explosiva y nos afecta el día 10. Ya en la segunda mitad, de nuevo el bloqueo anticiclónico en el Atlántico Norte vuelve a configurar una situación de vientos muy fríos procedentes de latitudes altas. Tras el paso de una vaguada, a partir del día 19 una potente dorsal anticiclónica trae tiempo estable. La recta final del mes está marcada por la recuperación de la circulación zonal, con la sucesión de rápidas vaguadas y dorsales que se traducen en empeoramientos y mejorías transitorias del tiempo. Un nuevo temporal sucede estos días, entre el 26 y 27, de la mano de la depresión atlántica “Bruno”.

Este mes ha sido, en general, muy húmedo, excepto en la Rioja Alavesa, donde la calificación se ha quedado en normal. El reparto de las cantidades mensuales de precipitación ha seguido el patrón espacial habitual. Los acumulados más altos, por encima de los 300 mm, se localizan en el este de Gipuzkoa (Ameraun 373.8 mm, Eskas 358.7 mm, Berastegi 340.4 mm) y en el interior de Bizkaia (Iruzubieta 328.7 mm, Amorebieta 319.4 mm, Muxika 314.4 mm). Los más bajos, en el eje del Ebro (Moreda 44.1 mm, Párganos 44.3 mm, Zambrana 72.5 mm). Los porcentajes respecto a lo normal muestran que Bizkaia ha sido la más beneficiada, con una amplia zona en su interior donde ha recogido más del doble de lo normal.

Las temperaturas medias de diciembre han sido frías en la vertiente cantábrica, normales en la mediterránea. Han rondado los 8-9 °C en la costa y los 5 °C en la Llanada Alavesa, aproximadamente -0.4 °C por debajo de lo normal para el conjunto de la CAPV. Este diciembre, por tanto, se encuentra entre los más fríos de lo que llevamos de siglo, aunque lejos del extremadamente frío 2001.

Los flujos marítimos del cuarto cuadrante han sido los protagonistas a lo largo del mes. Aunque menos, no han faltado tampoco los flujos ibéricos del tercer cuadrante. En cualquier caso, ha sido un mes de vientos intensos.

ABENDUA

Hilabetearen hasieran blokeo antiziklonikoa ezarri zen eta Artikotik etorritako itsasaldeko aire-masa bat zabaldu zen gurean. Hilaren 3an presio altuak hegoalderago kokatu eta Penintsulan zabaldu ziren; eguraldia egonkorra izan zen, beraz, baina hotz egin zuen. Gero zirkulazio zonala berrezarri zen eta hainbat fronte sistema pasa ziren Penintsularen iparraldetik. Egun hauetan Ana izeneko depresio atlantikoa nabarmendu zen, ziklogenesi leherkorra izan zuelako; hilaren 10ean izan ginen bere eraginpean. Hilabetearen bigarren partean Ipar Atlantikoan blokeo antiziklonikoa sortu eta goi-latitudetik etorritako haize oso hotza ibili zen gurean. Aska bat pasa ostean, hilaren 19tik aurrera eguraldia egonkortu egin zen berriro, gailur antizikloniko indartsu bati esker. Hilabetearen amaieran zirkulazioa zonala izan zen berriro eta gailurrak eta askak tartekatuz joan ziren azkar; eguraldia ere aldakorra izan zen, txarrera eta hobetzera egiten behin eta berriz. Hilaren 26tik 27ra beste denborale bat izan genuen, Bruno izeneko depresio atlantikoak bidalitakoa.

Hilabete hau, oro har, oso hezea izan zen, Arabako Errioxan izan ezik, bertan ohikoa izan zen. Hilabetezko prezipitazioaren kopuruaren banaketa espaziala ohikoa izan zen. Pilatutako prezipitazio kantitate altuenak, 300 mm-tik gorakoak, Gipuzkoa ekialdean neurtu ziren (Ameraun 373.8 mm, Eskas 358.7 mm, Berastegi 340.4 mm) eta Bizkaia barnealdean (Iruzubieta 328.7 mm, Amorebieta 319.4 mm, Muxika 314.4 mm). Baxuenak, aldiz, Ebro ibarrean (Moreda 44.1 mm, Páganos 44.3 mm, Zambrana 72.5 mm). Ohikoa denarekiko portzentajeen arabera, Bizkaian egin zuen euri gehien, barnealdeko toki askotan ohikoa denaren bikoitza jaso zen.

Abenduko batez besteko tenperatura hotza izan zen kantauri isurialdean eta ohikoa mediterraneokoan. 8-9 °C ingurukoa izan zen kostaldean eta 5 °C ingurukoa Arabako Errioxan, EAE osoa kontuan izanda ohikoa dena baino gutxi gorabehera - 0.4 °C baxuagoa. Hortaz, abendu hau mende honetako hotzenetarikoen artean dago, baina 2001 urte erabat hotzetik urrun.

Abenduan laugarren koadrantezko itsasaldeko fluxua nagusitu zen. Hirugarren koadrantezko fluxu iberikoak ere egon ziren, baina gutxiagotan. Nolanahi ere, hilabete haizetsua izan zen.

